

PINPILINPAUXA WEDDING PLANNER S.L.

Erronka hau aurkeztu zigutenean urte osorako proiektua izango zela esan ziguten. Hortik abiatuta idea desberdinak aztertu genituen jakiteko bidegarritasun handiena zerk edukiko zuen. Idea guztien artean, iruditu zitzaigun hemen inguruan ez zegoela Wedding Planner enpresarik, horregatik, ideia honek arrakasta handiena izango zuelakoan geunden.

Lan honetan Pinpilinpauxa Wedding Planner enpresa sortu dugu. Enpresa sortu aurretik hainbat puntu izan ditugu kontuan. Alde batetik hemen inguruan horrelako zerbitzurik ez daudela aztertu dugu eta beste aldetik proiektu arrakastatsua izango dela pentsatu dugu. Horretarako CANVAS erabili dugu proiektu inobatzailea sortzeko.

Izen askoren artean pinpilinpauxak gehien erakartzen digun izena izan da. Gure enpresaren izena indartzeko, marka propioa sortu dugu. Marka hori guk saltzen ditugun produktu guztietan agertuko da.

Pinpilinpauxa Wedding Planner enpresa, eskualdeko herriak aztertu ondoren, erdigune irisgarriena Eibar dela iruditu zaigu eta bertan kokatu dugu. Hortik hasita, lokalak begiratu ditugu eta Calbeton kalean alokatzea ideia ona iruditu zaigu.